



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko abenduaren 9a

136. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bete ditzan epaiak eta indarrean dagoen araudia, zeinetan ezartzen baitira gizarte langileak oinarrizko osasun barrutietan egoteko baldintzak. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzak ezar ditzan Castejonen, DBHI berri bat eraiki dezan eta egungo ikastetxearen instalazioak hobetu ditzan. Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da berma eta indartu ditzan prebentzioaren, detekzioaren eta jarraipenaren bidez GIB/hiesa desagerrarazteko ekintzak, hezkuntzakoak, esku-hartze sozialekoak eta osasun arlokoak. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Gobernuaren Ordezkaritzak daraman jokabidea askatasun zibilak –esaterako, adierazpen eta manifestazio askatasunak– murrizteari buruzko politika guztian. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkeztu dute (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da erretira ditzan Nafarroako zenbait udalen aurka jarritako errekursoak, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean erosahaltenaren galera dela-eta osagarri pertsonal bat ordaintzea erabakitzearen ondoriozkoak. Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztu du (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu “2020rako helburua: GIBaren transmisioak zero” adierazpenarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu CRANA Fundazioak Nafarroaren iraungarritasunerako daukan onuragarritasun publikoa. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak injerentzia onartezina delako arbuia-tzen baitu Gipuzkoako Aldundiaren seinalizazioa, Nafarroa Euskal Herriarekin identifikatzen duena. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Meridako adierazpe-narekin, Saharako herriari babeseta elkartasuna adierazteko XVIII. Konferentzian adierazia. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, osasun arloko araudia eta epaiak betetze aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Zangozako eskualdeko osasun-garraioari buruzkoa. Samuel Caro Sádaba jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, hartutako kalte zerebralari buruzkoa. Samuel Caro Sádaba jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Cementos Portland-Valderrivas enpresarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa. Víctor Rubio Martínez jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Tafallaren hegoaldeko saihebidetaren eraikuntzaren 1. faseari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Tafallaren hegoaldeko saihebidetaren eraikuntzaren 2. faseari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Tafallako “Marqués de la Real Defensa” ikastetxe publikoari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Tafallako Espezialitateen Zentroa eraikitzeko proiektuari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko foru lege proiektua izapidetzeari eta proiektua Par-lamentura igortzeko epeei buruzkoa. Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Sodenak egindako jarduketa eta inbertsio bakoitzaren alderdi ezberdinen emaitzei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, udal lurretan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bat eraiki dadin Aiegiko Udalak egindako eskaerari Hezkuntza Departamentuak emandako erantzunari buruzkoa. Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egin du (18. or.).
- Galdera, Santakarako erretaula nagusia zaharberritzeko obrei buruzkoa. Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Fiteroko Santa María la Real monasterioko klaustroa zaharberritzeko obrei buruzkoa. Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egin du (19. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan epaiak eta indarrean dagoen araudia, zeinetan ezartzen baitira gizarte langileak oinarrizko osasun barrutietan egoteko baldintzak.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bete ditzan epaiak eta indarrean dagoen araudia, zeinetan ezartzen baitira gizarte langileak oinarrizko osasun barrutietan egoteko baldintzak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iragan azaroaren 20an lan bilera bat egin genuen Gizarte Langileen Elkargo Profesionalaren ordezkariekin, zeinean agerian gelditu baitzen egoera kezkarria dela. Administrazioa sistematikoki urratzen ari da osasunaren arloan indarrean dauden arauak; esaterako, 22/1985 Foru Legea, Nafarroa osasun eskualdetan banatzen duena, eta 148/1986 Foru Dekretua, Oinarrizko Osasun Laguntzaren egiturei buruzkoa, non arautzen baita gizarte langileak ekipo profesionalean sartzea.

Hogeita zortzi urtez behin eta berriz izan dira arau-hausteak, bai eta oinarrizko hemeretzi osasun barrutien antolamenduari buruzko foru dekretuak bertan behera utzi dituzten epaiak ere. Araudiak eta epaiak babesa ematen diote elkargoaren aldarrikapenari, zeinaren bidez eskatzen baita gizarte langileak egotea osasun etxeetan, eta lotesleak dira Nafarroako Gobernuarentzat.

Egoera bidegabe bat denboran luzatzen ari da, eta horrek eragiten dio, alde batetik, aipatu talde profesionalari; izan ere, ez ditu estandarizatuta ez lan-zamak, ez lan-baldintzak ere, oinarrizko osasun laguntzako taldeak osatzen dituzten gainerako estamentuek ez bezala.

Eta, bestetik, egoera horrek eragina du, halaber eta batez ere, osasun sistema publikoaren erabiltzaileengan, zeinek ekitatean eta irisgarritasunean oinarritutako arreta soziosanitario integralerako eskubidea baitute. Are gehiago, krisi ekonomikoak populazioaren zati handi baten egoera soziosanitarioan duen inpaktua izugarria den honetan.

Figura hori beti izan da beharrezkoa, baina une hauetan funtsezko garrantzia hartu du, bai egoera sozialagatik eta horrek osasunean duen eraginagatik, bai Osasun Planean, Kronikoen Planean eta abarretan proposatzen diren politikengatik, ikuspuntu biopsikosozaletik abiatzen baitira.

Hala ere, egoera honen aurrean, Nafarroako Gobernuak ez du inolako konponbiderik proposatzen indarrean dagoen araudia eta aipatu epaiak betetzeko, eta Nafarroako biztanleriaren zati handi baten osasun laguntza publiko integralerako eskubidea urratzen du.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bete ditzan epaiak eta indarrean dagoen araudia, zeinetan ezartzen baitira gizarte langileak oinarritzko osasun barrutietan egoteko baldintzak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zuzenean egin dezan lan profesionalekin, eta prozesu bat abian jar dezan, plantillen banaketa, lan-zamak eta antolamenduari buruzko gainerako alderdiak adostu eta zehazteko.

3. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du gizarte langileen garrantzia, are gehiago egungo egoe-

ra sozioekonomikoan, eragin zuzena baitu pertsonen bizi kalitatean, egoera sozialean eta osasunean.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du osasun laguntza publiko integrala berma diezaien Nafarroako herritar guztiei, ekitatea, unibertsaltasuna eta irisgarritasuna oinarri dituen.

Iruñean, 2014ko azaroaren 25ean

Foru parlamentariak: Samuel Caro Sádaba, Bakartxo Ruiz Jaso, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzak ezar ditzan Castejonen, DBHI berri bat eraiki dezan eta egungo ikastetxearen instalazioak hobetu ditzan.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzak ezar ditzan Castejonen, DBHI berri bat eraiki dezan eta egungo ikastetxearen instalazioak hobetu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

1989ko urtarrilean, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Nafarroako Zuzendaritzak, "Ikastetxeen Sarea-Hezkuntza Planifikazioa Nafarroan Irakaskuntzen Erreformari Begira" azterlanean, Castejonerako derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikastetxe bat jartzea erabaki zuen, Castejón, Cadreita, Arguedas eta Valtierra biztanleei zerbitzua ematearren. Ikastetxe hori, halere, ez zen eskola-mapan sartu.

1997ko ekainean, Hezkuntza Departamentuak behin-behinekoz baimendu zituen Castejonen bigarren hezkuntzako lehen zikloko ikasketak, herriko familiek eta, oro har, hezkuntza-erkidegoak behin eta berriro hala eskatuta.

1999/2000 ikasturtean, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak derrigorrezko bigarren hezkuntzako 1. maila kendu zuen –35 ikasleek Tuterara joan behar izan zuten ondorioz– eta 2. maila soilik utzi.

Castejongo Udalak halaber ikusi zuen beharrezkoa zela herriarentzat hain garrantzitsua den auzi hori konpontzea, eta halatan, 2000ko ekainaren 23an egindako osoko bilkuran aho batez onetsi zen derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloko ikasleei emandako hezkuntza zerbitzua herrian mantentze eta zerbitzu hori etorkizunean bigarren ziklora zabaltzea. Erabaki horretan jasotako eskakizunak Nafarroako Parlamentura heldu ziren Eskola Kontseiluko ordezkariak eta herriko

alkateak Hezkuntza eta Kultura Batzordean ekainaren 2an egindako agerraldian.

Nafarroako Parlamentuak Castejongo hezkuntza zerbitzuari buruz 2000ko ekainaren 30ean hartutako erabakia betez, maiatzaren 24ko 12/2001 Foru Legeak, bere artikuluko bakarraren bidez, xedatu zuen Nafarroako Gobernuak derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloari dagozkion hezkuntza zerbitzuak ezarriko zituela Castejónen, bertako herritarrek eskatzen duten eskolatzeari erantzuteko.

Foru lege horretako lehen xedapen iragankorak orobat xedatu zuen derrigorrezko bigarren hezkuntzako bigarren zikloa pixkanaka ezarri eta ikasleen hezkuntza zerbitzua handitu ahalko zuela Nafarroako Gobernuak, herrian aurreikusi den industria garapenari begira.

2011n, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak mozio bat aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuan, eta bertan honako erabaki proposamena jasotzen zen:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiazten du Castejonen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lau mailetak ikasketak ezar daitezen, 2000ko ekainaren 30eko Foru Legearen babesean.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiazten du ikasketa horiek kalitate-irizpideekin bat eman ahal izateko behar diren gelak eta instalazioak dituen eraikin publiko bat egokitu edo egin dezan.

Mozio hura ez zen onetsi, 28 aurkako boto eta 17 aldeko jaso baitzituen. Hala ere, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Castejongo Bigarren Hezkuntzako ikastetxera eginiko bisitaren ondoren, premiazko zenbait konponketa egin ziren eta ikasgelak materialez hornitu ziren.

Hiru urte pasa direnean, egoerak okerrera egin du: itogin ugari eman zen azken pintura-geruza hondatu dute, berogailuekin arazoak izaten jarraitzen dute eta arazok larriagoak dira, ikasgelek eta gimnasioak ez dituzte gutxieneko kalitate-baldintzak betetzen, baliabide teknikoak eta giza baliabideak oso urriak dira eta materiala ez da berritu.

Castejongo biztanle kopurua hazi egin da, neurri handi batean industria-garapenari esker, eta 1999an 3.149 biztanle izatetik 2013an 4.325 biztanle izatera igaro da. Horren ondorioz, eskolatzeko adineko populazioa asko handitu da.

2002an, DBHko ikastetxean 23 ikasle zeuden, eta 2014-2015 ikasturtean Castejongo 82 ikasle zeuden, DBHko lehenengo eta bigarren maila egin behar zituztenak, baina, tamalez, ikastetxearen

egoera dela-eta, familia askok Tuterara eraman behar izan dituzte beren seme-alabak ikastera.

Datozen urteetan DBHko ikasle kopurua are gehiago handituko da; adibidez, Lehen Hezkuntzako laugarren mailan 62 ikasle daude orain, eta hiru urte barru DBHko lehenengo maila egin beharko dute; hurrengo urtean 76 ikasle sartuko lirake DBHn, eta hurrengoetan ere antzeko ikasle kopurua sartuko litzateke.

Zenbateko horien arabera, soilik hiru urte barru 138 ikasle egongo lirake Castejonen DBHko lehen zikloan, eta bigarren zikloa ezarrita egonen balitz, ikasle kopuruak 226raino egingen luke gora; gure ustez, zenbateko hori nahikoa da Castejonen DBHko ikastetxe bat jartzeko.

Hezkuntza-erkidegoaren ustez, ikastetxea bizilekutik gertu egoteak erraztu egiten du familiaren eta ikastetxearen nahiz irakasleen arteko harremana, eta seme-alaben hezkuntza-prozesuan modu aktiboan parte hartzeko aukera ematen die. Familiak orobat uste dute Tuterara errepidez joan behar diren arriskua ekidin daitekeela.

Hori dela-eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak babestu eta konpartitzen ditu Castejongo hezkuntza-erkidego osoaren aldarrikapenak, zeinak baitira herri horretan DBHko bigarren zikloa ezartzea, Castejonen DBHko ikastetxe berri bat egitea eta egungo instalazioak hobetzea, ikastetxe berria erabili ahal izan arte.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiazten du Castejonen arian-arian ezar daitezen, maiatzaren 24ko 12/2001 Foru Legearen babesean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. zikloko ikasketak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiazten du lehenbailehen eraiki dezan eraikin publiko bat, Castejonen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak kalitate-irizpideekin bat eman ahal izateko behar diren gelak eta instalazioak dituen.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiazten du Castejonen DBHko lehen zikloko ikasketak ematen diren gaur egungo ikastetxeko instalazioak egokitu ditzan eta ikastetxea beharrezkoa den materialaz horni dezan, ikastetxe berria eraiki bitartean, eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeko zuzendaritza babestu eta erraztasunak eman diezazkion Castejongo DBHko hezkuntza-erkidegoak erabiltzen dituen espazioen konponketa eta mantentze-lanei buruzko zuzemenetarako.

Iruñean, 2014ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma eta indartu ditzan prebentzioaren, detekzioaren eta jarraipenaren bidez GIB/hiesa desagerrarazteko ekintzak, hezkuntzakoak, esku-hartze sozialekoak eta osasun arlokoak.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berma eta indartu ditzan prebentzioaren, detekzioaren eta jarraipenaren bidez GIB/hiesa desagerrarazteko ekintzak, hezkuntzakoak, esku-hartze sozialekoak eta osasun arlokoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Osasun Publikoko Institutuaren azken aldizkariaren arabera (78. zenbakia, 2014ko irailekoa), 2013an GIBagatik 44 infekzio kasu berri diagnostikatu ziren, aurreko urtean baino 12 kasu gehiago. Horrek esan nahi du kasu kopurua % 37,5 areagotu dela, eta agerian uzten du infekzioaren goranzko joera. Hori oso larria da, kontuan hartuta kutsatzeari aurrea hartu ahal zaiola.

Horrekin lotuta, ezinbestekoa da egun eskuragarri dauden prebentzio-aukera guztiak aztertu eta ezartzea, eta hezkuntza arautu osoan lehenta-

sun ematea sexu-osasunerako beharrezkoa den heziketari.

Hezkuntza Departamentuak ez du beharrezkoa den erabakitasunez sartzen sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko prestakuntza hezkuntza-sisteman, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoan ezartzen den moduan.

Bestalde, GIB/hiesa detektatu eta prebenitze aldera gizartean esku hartzen urteak daramatzaten elkarte eta komunitate-zentroentzako finantzaketa publikoa drastikoki murriztu da azken urteotan eta erdiraino jaitsi da, eta Administrazio Publikoak ez ditu bere gain hartu entitate horiek egiten zituzten eta dituzten eginkizunak.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berma eta indartu ditzan prebentzioaren, detekzioaren eta jarraipenaren bidez GIB/hiesa desagerrarazteko ekintzak, hezkuntzakoak, esku-hartze sozialekoak eta osasun arlokoak, eta ziurta dezan erakunde publikoen ekimena osatzen eraginkortasuna eta efizientzia erakutsi duten elkarte eta komunitate-zentroyen iraungarritasun ekonomikoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekintza zehatzak abian jar ditzan Nafarroan arriskuko sexu-praktikekin lotuta gertatzen ari diren GIBaren kutsatze kasuen kopuru handia murrizteko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sendotu eta finantza daitezen drogen arloko kalteak murrizteko programa, asko lagundu baitute GIB/hiesaren izurriaren kontrolaren alorrean.

Iruñean, 2014ko azaroaren 27an

Foru parlamentariak: Samuel Caro Sádaba, Bakartxo Ruiz Jaso eta Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Gobernuaren Ordezkaritzak daraman jokabidea askatasun zibilak –esaterako, adierazpen eta manifestazio askatasunak– murrizteari buruzko politika guztian.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA FORU PARLAMENTARI PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Gobernuaren Ordezkaritzak daraman jokabidea askatasun zibilak –esaterako, adierazpen eta manifestazio askatasunak– murrizteari buruzko politika guztian.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Orain dela gutxi lan bilera bat egin dugu Parlamentu honetan “Kalea denona/La calle es de todos” elkartearekin, zeina mobilizazio bake-tsuetan parte hartzeagatik zehapen administrati-boak jaso dituztenek osatzen baitute. Elkarteak emandako datuetatik ondorioztatzen da gisa horretako isunak modu eskandalagarrian ari direla

areagotzen, halako moduan non gure erkidegoa baita halako isun gehien ezarri den tokia eta isunen zenbateko osoa eskandalagarriena den tokia.

Elkarte horretako kideek nabarmendu zuten bezala, zehapen horiek modu arbitrarioan jartzen dira, askotan aurretiazko identifikaziorik gabe, ageriko akatsak dituzte, eta beti elkarretaratze edo errebindikazio-ekintza baketsuetan jartzen dira, Troiak eta gobernuak ezarritako austeritate-politiken aurka herritarrek egindako bidezko aldarrikapenak isilarazi nahian. Gertakari horien larritasuna aintzat hartuta, behean sinatzen duten parlamentu-taldeek ondoko erabaki proposamena aurkeztu dute:

1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Gobernuaren Ordezkaritzak daraman jokabidea askatasun zibilak –esaterako, adierazpen eta manifestazio askatasunak– murrizteari buruzko politika guztian.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkertasuna adierazten die edozein protesta baketsutan parte hartzeagatik zehatutako pertsona eta kolektibo guztiei.

3. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiaren doktrinari jarraikiz, zeinaren bidez jotzen baita gisa horretako zehapenek giza eskubideak urratzen dituztela, Nafarroako Parlamentuak Gobernuaren Ordezkaritzari exijitzen dio errepre-sio-politika hori amaiaz dezan eta aipatutako arrazoi horiengatik abiarazitako zehapen guztiak baliogabetu ditzan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 25ean

Foru parlamentariak: Santos Cerdán León, Víctor Rubio Martínez, Xabi Lasa Gorraiz, José Miguel Nuin Moreno eta Patxi Leuza García

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da erretira ditzan Nafarroako zenbait udalen aurka jarritako errekurtsioak, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean erosahalmenaren galera dela-eta osagarri pertsonal bat ordaintzea erabakitzearen ondoriozkoak.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita erretira ditzan Nafarroako zenbait udalen aurka jarritako errekurtsioak, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean erosahalmenaren galera dela-eta osagarri pertsonal bat ordaintzea erabakitzearen ondoriozkoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, kasuko Batzordean eztabaidatzeko:

Orain dela gutxi, Ogasuneko ministro Cristóbal Montorok iragarri du langile publikoek heldu den urtearen hasieran kobratuko dutela Gobernuak 2012an kendu zien aparteko ordainsariaren ehuneko 25.

Adierazi zuen ezen langile publikoek dirutan kobratuko dutela ekainaren 1etik uztailaren 14ra sortutako 44 egunei dagokiena, egun horretan onetsi baitzen Gabonetako ordainsaria bertan behera uzteko dekretua. Zenbait epaitegik jada emanak zituzten epaiak, hainbat administrazio

behartzen zituztenak 44 egun horiek ordaintzera, haien esanetan funtzionarioek sortua zutelako eskubide hori aparteko ordainsaria kendu zitzaienean. Auzitegi Gorenak berak ere adierazia zuen zalantzak zituela 2012ko aparteko ordainsaria kentzearen legezotasunari buruz. Aurrekontuetan jaso egingen da dirutan eginiko itzulketak hori, 230 milioi euro baino kostatuko ez zaiena.

Itzulketak dirutan egingen da azkenik, eta ez, hasiera batean esan zen bezala, pentsio planetan egindako ekarpenen bidez, Administrazio Publiko-eta estatu-idazkari Antonio Betetak Kongresuko Aurrekontu Batzordean egindako agerraldian adierazi zuenez.

Nafarroako Gobernuak 2013ko ekaineko aparteko ordainsaria 2013ko urtarrilera aurreratu zien bere langileei.

Eta zenbait udalek 2012ko abenduan erabaki zuten osagarri bat ordaintzea erosahalmenaren galera dela-eta –ekainean ordaindutako aparteko ordainsariaren zenbatekoaren parekoa–, Erosahalmenaren galera dela-eta 2012rako eraginarekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean. Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak errekurtsioa aurkeztu zuen erabaki horien aurka.

Ikusita Espainiako Gobernuak laster itzuliko diela bere funtzionarioei aparteko ordainsariaren ehuneko 25 eta zenbait epaitegik emandako epaiak aintzat hartuta, gure parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du erretira ditzan Nafarroako zenbait udalen aurka jarritako errekurtsioak, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean erosahalmenaren galera dela-eta osagarri pertsonal bat ordaintzea erabakitzearen ondoriozkoak”

Iruñean, 2014ko azaroaren 27an

Foru Parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu “2020rako helburua: GIBaren transmisioak zero” adierazpenarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Espainiako Estatuak 2020an GIBaren transmisioak zero izateko helburua ezarri duten herrialdeekin bat egitearen alde dagoela, eta uste du Nafarroako Gobernuak jarrera hori defendatu behar duela Osasun-sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluan.

2. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du GIB/IHESari buruzko Nazio Batuen programa bateratua –ONUSIDA–, zeinak helburu baitu GIBaren transmisiorik gabe heltzea 2020ra; hartara, uste du behar-beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak eta Estatuko Gobernuak beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta teknikoak bideratzea helburu hori lortzeko, gizarte, hezkuntza

nahiz osasun arloko murrizketen gaur egungo bere politika amaiaziz.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela Estatu osoan osasun-sistema publikorako irisgarritasun unibertsala berrezartzea, GIB/IHESaren prebentziorako, tratamendurako eta desagerrarazpenerako beharrezkoa den berme gisa.

4. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du “2020rako helburua: GIBaren transmisioak zero” adierazpenarekin, zeina SARE elkarteak eta IHESaren aurkako Nafarroako batzorde hiritarrak bultzatu baitute; halaber, herritarrei dei egiten die parte har dezaten IHESaren desagerrarazpena babeste aldera abenduaren 1ean antolatzen diren ekitaldietan.”

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitu CRANA Fundazioak Nafarroaren iraungarritasunerako daukan onuragarritasun publikoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du CRANA Fundazioak Nafarroaren iraungarritasunerako daukan onuragarritasun publikoa.

2 Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du CRANA Fundazioa mantentzeko dezan.

3 Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du CRANA Fundazioa baliabide

ekonomikoz horni dezan, eta bere eginkizunak itzul diezazkion.

4 Nafarroako Parlamentuak uste du ezin dela galdu CRANAK eman dizkigun ez giza kapitala, ez ingurumen-kalitateko lobyak, zeinak ingurumen-politiken abangoardian jarri baikaitu.

5 Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du CRANAK Europako proiektuak kudeatu ahal izan ditzan Landa Garapenerako 2014-2020 Planeari”

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak injerentzia onartezina delako arbuiatzen baitu Gipuzkoako Aldundiaren seinalizazioa, Nafarroa Euskal Herriarekin identifikatzen duena.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak injerentzia onartezina delako arbuiatzen du Gipuzkoako Aldundiaren seinalizazioa, Nafarroa Euskal Herriarekin identifikatzen duena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laster jardun dezan, Foru Komunitatearen aurkako eraso nazionalista berri honen aurrean, eta exiji dezan berehala ken-

tzea Nafarroa eta Euskal Herria identifikatzen dituzten afixak.

3. Parlamentuak Nafarroako errealitate instituzionalarekiko errespetu erabatekoa exijitzen dio Gipuzkoako Aldundiari.

4. Parlamentuak berresten du Nafarroa ez dela izan, ez orain ez inoiz, Euskal Herria izeneko inolako ente historiko edo politikoren parte”

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Meridako adierazpenarekin, Saharako herriari babesa eta elkartasuna adierazteko XVIII. Konferentzian adierazia.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Meridan 2014ko apirilaren 26an egindako adierazpenarekin, Extremadurako Parlamentuan egindako parlamentu-taldeen arteko taldeen XVIII. Konferentzian adierazia. Han hartutako erabakien artean, besteak beste, dei egiten zen argi eta garbi, Nazio Batuen ebazpenetan nahiz nazioarteko zuzenbidearekiko errespeturik handienez oinarrituta, Saharako herriak erreferendum bidez autodeterminaziorako daukan bidezko eskubidea errespetatzera, hamarkadotako deskolonizazio prozesuaren azken urrats gisa.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du Fronte Polisarioa dela Saharako herriaren zilegizko ordezkari bakarra, Nazio Batuek eta nazioarteko erkidegoak onartu duten bezala.

3. Nafarroako Parlamentuak erabaki du bere konpromisoa mantentzea eta areagotzea parlamentu-ekintzari dagokionez, besteak beste bideratzen dena aurrekontu publikoen eta garapenerako lankidetzaren bidez ahalbidetzera Saharako herriarekiko lankidetzarako, giza laguntzarako eta elkartasunerako kontusailak, bai erre-fuxiatu-eremuetan, bai lurralde okupatuetan ere.

4. Nafarroako Parlamentuak uste du jarduera horretan lehentasuna daukala Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetara bisitak egiteak eta parlamentu-ordezkaritzak igortzeak, laguntza emateko, elkartasuna adierazteko eta giza eskubideekiko errespetua ikuskatzeko.”

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, osasun arloko araudia eta epaiak betetze aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.**BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, osasun arloko araudia eta epaiak betetze aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan azaroaren 20an lan bilera bat egin genuen Gizarte Langileen Elkargo Profesionalarekin, zeinean agerian gelditu baitzen egoera kezkarria dela. Administrazioa sistematikoki urratzen ari da osasunaren arloan hemen onetsitako arauak; esaterako, 22/1985 Foru Legea, Nafarroa osasun eskualdetan banatzen duena, eta 148/1986 Foru Dekretua, Oinarrizko Osasun Laguntzaren egiturei buruzkoa, non gizarte langileak ekipo profesionaletan sartzeara arautzen den.

• 28 urtez araudia aldiro urratu ondoren eta horren gaineko epaiak ikusita, Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu legea eta aipatu epaiak betearazteko?

Iruñean, 2014ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Zangozako eskualdeko osasun-garraioari buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, Zangozako eskualdeko osasun-garraioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádaba jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Zangozako eskualdeko osasun-garraioari buruzko honako galdera hau aurkeztu du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

- Gobernuak ziur al daki Zangozako La Nora enpresak kontratuari uko egin nahi diola?

- Hori horrela bada, Gobernuak zer konponbide emanen dio uko horrek eraginen lukeen egoerari?

Iruñean, 2014ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, hartutako kalte zerebralari buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, hartutako kalte zerebralari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Samuel Caro Sádaba jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, hartutako kalte zerebralari buruzko honako galdera hau aurkeztu du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

- Lehenik eta behin, zerotik hamasei urtera bitarteko zenbat haur dago gaur egun, hartutako kalte zerebrala daukatela diagnostikaturik?

- Zer baliabide dago gaur egun horiek artatzeko, fase kritikoa deiturikoa gainditu ostean?

Iruñean, 2014ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, Nafarroako Gobernuak Cementos Portland-Valderrivas enpresarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Cementos Portland-Valderrivas enpresarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko organo eskudunari, idatziz erantzun diezaion:

2012ko ekainaren 25ean, Cementos Portland-Valderrivas enpresak udalez gaindiko proiektu sektoriala eta ingurumen-baimen integratua alda-

tzeko eskaria egin zuela-eta, enpresaren ordezkariak Nafarroako Gobernuarekin ozta-ozta lau egin lehenago sinatutako hitzarmen bat aurkeztu eta balioan jarri zuen.

Bada, enpresaren helburuak eta Foru Komunitatearen interesak bat zetozela adierazi zela ikusita, hauxe jakin nahi dut:

1.- Enpresak hitzarmena aurkeztu ahal izateko eta udalez gaindiko proiektu sektoriala izapidetu ahal izateko sinatu al zuen Nafarroako Gobernuak hitzarmena? Izan ere, balizko ebazpen baten edukia aldekoa aitzineratu zuen, helburuetan adierazitako bat etortzea zela-eta.

2.- Departamentuaren ustez, Nafarroako Gobernuak zer konpromiso hartu ditu egiaz enpresarekin, hondakinen politika publikoaren kudeaketari dagokionez?

3.- Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea zer ondoriotara heldu da bere urteko bileretan, baldin eta halakorik egin badu?

4.- Bilera horien ondorioz aldaketarik egin al da? Alegia, jarduketa berririk eta ingurumen-helburu berririk jaso al da?

Iruñean, 2014ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, Tafallaren hegoaldeko saihsbidearen eraikuntzaren 1. faseari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Tafallaren hegoaldeko saihsbidearen eraikuntzaren 1. faseari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tafallaren hegoaldeko saihsbide eraikitzearen 1. faseari dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

- Proiektua zertan den.
- Proiekturako jarritako baliabideen zenbatekoa.
- Jarduketa-aurreikuspenen egutegia.

Iruñean, 2014ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Tafallaren hegoaldeko saihsbidearen eraikuntzaren 2. faseari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Tafallaren hegoaldeko saihsbidearen eraikuntzaren 2. faseari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tafallaren hegoaldeko saihsbidearen eraikuntzaren 2. faseari dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

- Proiektua zertan den.
- Proiekturako jarritako baliabideen zenbatekoa.
- Jarduketa-aurreikuspenen egutegia.

Iruñean, 2014ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Tafallako “Marqués de la Real Defensa” ikastetxe publikoari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Tafallako “Marqués de la Real Defensa” ikastetxe publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tafallako “Marqués de la Real Defensa” ikastetxe publikoari dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

- Ikastetxe horretan aurreikusitako mantentzenahiz hobekuntza-jarduketak eta inbertsioa.

- Proiekturako jarritako baliabideen zenbatekoa.

- Jarduketa-aurreikuspenen egutegia.

Iruñean, 2014ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Tafallako Espezialitateen Zentroa eraikitze proiektuari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Tafallako Espezialitateen Zentroa eraikitze proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tafallako Espezialitate Zentroa eraikitze proiektuari dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

- Proiektua zertan den.

- Proiekturako jarritako baliabideen zenbatekoa.

- Jarduketa-aurreikuspenen egutegia.

Iruñean, 2014ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko foru lege proiektua izapidetzeari eta proiektua Parlamentura igortzeko epeei buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko foru lege proiektua izapidetzeari eta proiektua Parlamentura igortzeko epeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialdek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

- Zer izapidetze-fasetan da emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko foru lege proiektua? Zer epetan igorriko da Parlamentura, eztabaidatzeko?

- Nola egingen da izapidetzea? Parlamentu-taldeen zuzenketak aurkezteko modurik izanen al dute? Eztabaidatu egingen al dira? Legea Parlamentu honetan onetsiko al da?

Iruñean, 2014ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Sodenak egindako jarduketa eta inbertsio bakoitzaren alderdi ezberdinen emaitzei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Sodenak egindako jarduketa eta inbertsio bakoitzaren alderdi ezberdinen emaitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azaroaren 26an Parlamentuan egindako agerraldian, Ekonomiako kontseilari Lourdes Goicoechea andreak Sodenaren jarduera globalaren balantzea egin zuen; besteak beste, ondokoak azpimarratu zituen:

1. Errentagarritasuna
2. Salmenten igoera.
3. Enplegu-sorkuntza.
4. Inbertsioen eragin biderkatzailea.

5. Berrikuntzaren areagotzea eta hobekuntza.
6. Nazioartekotzearen areagotzea.

Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

- Aipatutako sei atal horietako bakoitzari buruz-

ko azalpen xehakatur, Sodenak egindako inbertsio bakoitzari dagokionez.

Iruñean, 2014ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, udal lurretan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bat eraiki dadin Aiegiko Udalak egindako eskaerari Hezkuntza Departamentuak emandako erantzunari buruzkoa.

MIREN JULIA ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, udal lurretan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bat eraiki dadin Aiegiko Udalak egindako eskaerari Hezkuntza Departamentuak emandako erantzunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarragak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernu-ko organo eskudunak idatziz erantzun diezaion:

2014ko azaroaren 17an egindako Osoko Bilkuran, Aiegiko Udalak erabaki zuen Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari eskatzea Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko bat eraiki dezan herriko udal lurretan, izan ere, urte gutxian 800 biztanle izatetik 2.300 izatera igaro da herria.

- Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak zer erantzun eman dio eskaera horri?

Iruñean, 2014ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, Santakarako erretaula nagusia zaharberritzeko obrei buruzkoa.

MIREN JULIA ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Santakarako erretaula nagusia zaharberritzeko obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarragak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernu organo eskudunak idatziz erantzun diezaion:

- Nafarroako Gobernu Kultura Departamentuak ba al du planik, edo ba al du planik ezartzeko asmorik, nafarrei ezagutarazteko Santakarako erretaula nagusia zaharberritzeko obren emaitza?

Iruñean, 2012ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, Fiteroko Santa María la Real monasterioko klaustroa zaharberritzeko obrei buruzkoa.

MIREN JULIA ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Fiteroko Santa María la Real monasterioko klaustroa zaharberritzeko obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarragak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernu organo eskudunak idatziz erantzun diezaion:

- Nafarroako Gobernu Kultura Departamentuak ba al du planik, edo ba al du planik ezartzeko asmorik, nafarrei ezagutarazteko Fiteroko Santa María monasterioko klaustroa zaharberritzeko obren emaitza?

Iruñean, 2014ko azaroaren 27an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

